

## **1. Sarrera**

Etengabeko teknologia berrien sorrerak eta informazioa jasotzeko euskarrien aldaketak eragin dute irakurketarako paperezko produktuak bigarren maila batean geratzea. Besteak beste, argitalpen industria. Hori kontuan izanik erabaki dugu arlo honetan sakontzea. Liburugintzaren jatorritik hasita irakurmena sustatzeko tekniketaraino ibilbide bat eginik. Aztertutako datuen arabera, ikusi daiteke liburugintza ondo finkatuta dagoen industria dela. Baina papera betirako agurtzeko zorian gaudela ikusita, nolatan izan liteke hori posible? Liburugintzak ere, digitalizazio prozesuan dagoelako. Horretaz aparte, irakurketa sustatzeko metodoak oso baliagarriak dira eta orain arte konkistatu gabeko publikoarengana hurbiltzen ari dira pixkanaka-pixkanaka.

Hori izango da, hain zuzen, lan honetan azalduko duguna. Industria, legeria, ohiturak... liburugintza bere osotasunean aztertuko dugu.


## **2.Liburugintza estatu Espainiarrean**

Estu espainiarrean liburugintza ondo finkatuta dagoen industria da eta gainera industri arrakastatsu gisa ikusi dezakegu edo behintzat jasotzen dituen irabazi handiek hau uste izatera garamatzate. Izan ere, ondoren aztertuko dugun taulan ikusi daitekeen bezala, 2009.urtean barne merkataritzako fakturazioa 3109,58koa izan zen.

Urtero Espainiako argitalpen industriak ateratzen duen txostenaren arabera honako hauek dira 2009. urtean barne merkatuak jasotako datuak:

	2009	%2009-2008
Enpresa pribatuen zenbatekoa	889	3,6
Langile zuzenak	14 240	-9,5
Editatutako tituluak	76 213	4,4
Sortutako ale kopurua	329 831	-10,2
Bataz besteko sorta	4328	-14,0
Egungo titulu eskaintza	414 727	5,5
Barne merkataritzako fakturazioa(PVP)	3109,58	-2,4
Saldutako kopiak	236 197	-1,7
Bataz besteko salneurriak	13,17	-0,7

Ikusi dezakegunez Estatu Espainiarrean editoreak eta editatutako liburuak gora egin dute %4.4 batean baina hala ere langabeziak gora egin du sektore honetan. %9,5 langile zuzen gutxiago ditu argitalpen industriak.



FGEEK egindako ikerketaren arabera haur eta gazte literaturak, testu ez unibertsitarioak eta literatura nabarmen egin du gora 2009. urtean. Hiztegi eta entziklopedien salmentak behera egin duen bitartean. Testu ez unibertsitarioak merkatu kuotaren %27.2 suposatu du, literaturak % 22,9 eta haur eta gazte literaturak %11,3. Eleberriak eta batez ere gaurkotasunezko eleberriak fakturazio orokorraren %88.5 suposatu zuen eta salmenten %91.

## 2.1 BEST-SELLER

Gaur egun diogun bezala, Espainiako liburugintzaren industria ongi finkatua dagoen arren eta milioidun datuak mugitzen dituen arren badago arazo handi bat ere. Espainian liburu asko editatzen dira baina ez dira guztiak saltzen, ezta guztiak irakurtzen ere. Liburuek biltegieta bukatzen dute urtero eta irakurzaletasuna jaitsiz

doa. Esan daiteke Espainian liburu gehiegi editatzen direla espainiarrek duten liburu zaletasun urrirako.

Best-sellerra da arazo honi aurre egiteko espainiar editoreek proposatzen dutena. Hau da, promozio eta salmenten indarra titulu gutxi batzuegan proiektatu eta hauen salmenta handiekin urteko galerak neutralizatu. Editatutako liburu batek editatzeak suposatutuen gastuak amortizatzeko 2000 ale saldu beharko lirateke eta liburu gutxik lortzen dute salmenta kopuru hau. Best-sellerrak aldiz 100 000 kopian gora saltzen ditu eta bere kostuez gain editorialeko produkzio kostuak ere betetzea lortzen du, askotan irabaziak emanez.

Baina guzti honek best-sellerrak ez diren beste liburuei eta hauen idazleei egiten die kalte. Batzuk kopuru oso txikiak kobratzen dituzten artean (salmenten %10a) besteek milioi asko irabazten dituzte. Eta ez hori bakarrik, idazle eta liburuez gain editore ertain eta txikiek ere kompetentzia handia jasaten dute gero eta indartsuago bihurtzen ari diren enpresa handietatik.

Beraz Espainian liburugintza sektorea optimista den arren baditu ezkutuan hainbat arrisku enpresa kontzentrazioak edizio sistemaren erabileran inposatzen dituenak. Espainian lau talde daude edizioen sektorea eta merkatua kontrolatzen dutenak eta haueetatik erdia baino gehiago atzerrikoak dira. Planeta, Santillana, Hachette (Anaya eta Salvat) eta Bertelsmann multinazionala.

Planeta	Ariel, Seix Barral, Crítica, Destino, Espasa Calpe, Larousse, Agostini, Civitas, Martínez Rocas, Paidós, Minotauro, Club Internacional del Libro, Deusto, Emecé, Booket (eta filialak Argentina, Txile, Kolonbia, Ekuador, Mexiko eta Venezuelan)		
	Logista	La Casa del Libro	La Razón, Avui, Antena 3
Timón-Santillana (Prisa taldekoa)	Aguilar, Santillana, Alfaguara, Altea, Taurus eta Moderna. (eta filialak Argentina, Peru, Kolonbia, Venezuela, Puerto Riko, Ekuador, Mexiko eta Costa Rica)		
	Itaca, Gelesa	Crisol	El País, Ser, Digital +, Cuatro...
Anaya (Hachette talde frantziarrekoa)	Anaya, Alianza, Tecnos, Cátedra, Losada, Pirámide, Siruela, Salvat eta Bruno; gehi Germán Sanchez Ruipérez fundazioa		
	SGEL	La Boutique de la Prensa	

Egoera honek ez dio onurarik ekartzen sektorearen PYMESari, zein kulturaren aintzasunaren motor den. Ezta idazle berriei ere. Egoera honek komertzialak diren produktuei baino ez die mesede egiten.

Argitalpen industriak ez du baina estatua barnean bakarrik saltzen. Inportazioa garrantzitsua da sektore honetan. Espainiako argitalpen industriak ateratako txostenaren arabera 2009an esportazioetan 442,37 milioi jaso zituen. 2008. Urtearekin konparatuz %18,95 gutxiago.


Espainiar estatuaren esportazio nagusia Europan burutzen da 253.99 milioi jasoaz eta bigarren puntu garrantzitsua Amerika da 175,42 milioi sortarazten dituen. Mexiko da Amerikan Espainiar liburu gehien kontsumitzen dituen herrialdea.

### **3. Euskal liburugintza Iraganetik Orainera**

#### **3.1 HASIERATIK HASITA**

Euskal liburugintza ez da gaur egun sortu den industria. Badu historian zehar ibilbide bat eta hemen ere iraganera begiratu behar dugu gaur eguneko egoera ulertu nahi baldin badugu.

Euskal liburugintza, euskaraz argitaratutako liburuak bezala ulertzen badugu, 1545. urtera arte egin behar dugu salto. Garai honetakoa da euskaraz idatzirik eta



inprimaturik aurkitu den lehen liburu, "Linguae Vasconum Primitiae". Gai ugari jorratzen dituen bertso bilduma hau [Bernart Etxeparek](#) idatzi zuen eta Bordelen plazaratu zen. Tituluan bertan, hitzaurrean eta amaierako poemetan agerian gelditzen da, Etxepare, lehen euskal idazlea dela. Euskarari "kanpora, plazara dantzara" irtetzeko agintzen dio, eta euskaldunek ere bide berriak urra ditzatela nahi du.

Mende erdi geroago [Joan Perez Lazarraga](#) idazle arabarrak "Joan Perez Lazarragakoren eskuizkribua" idatzi zuen. Gutxi gora behera 1567tik 1602ra

bitartean idatzitako lanak biltzen dituen sorta da eta Artzain nobela batek eta 21 koplek osatzen dute eskuizkribua. Hego Euskal Herrian aurkitu dezakegun literatura idazlan zaharrena da eta bertan Euskal Herria (eusquel herria) terminoa azaltzen da lehen aldiz. Idazlan osoan zehar 3 aldiz azaltzen zaigularik.

Hauek hasitako bideak baina, ez zuen jarraipen handirik izan eta ondorengo urteetan Torrealdaik emandako datuen arabera (1997:54-56), XVI. eta XVII. mendeetan 52 liburu baino ez ziren argitaratu. Gainera azpimarratzekoa da argitalpen horiek, denak Euskal Herritik kanpo egin zirela.

1700etik 1875era, Euskal liburugintzak gorakada nabarmena bizi izan zuen. 671 liburu argitaratu ziren garai hartan. Aipatzekoa da Euskal herrian bertan argitaratzen direla garai honetan liburuak honela atzerriko argitalpenak indarra galduz eta jorrotutako gaiak ere aldaketak ematen dituzte hau da, ez dira soilik erlijio aipatzen garai hartako liburuetan.

Hurrengo 60 urteetan(1875etik 1936ra) garai berezia bizi du Euskal Herriak. Susperraldi garaia. Eta susperraldia liburu ekoizpenean ere nabaritu zen. Garai honetan 1422 titulu argitaratu ziren eta gaiek ere aldaketa nabarmena eman zuten. Erlijioaren gainbeheraz gain literaturaren gorakada nabarmena da. Baina susperraldi hau errotik ebaki zuen Francoren diktadurak eta batez ere euskarazko literaturan. Hala ere 1937 eta 1974 urteen tartean 1733 liburu argitaratu ziren.

Baina Euskal liburugintzaren benetako susperraldia garai bati egokitu behar badiogu Franco hil eta ondorengo urteetan kokatu behar dugu. Behintzat Hego Euskal Herrian. 1976tik 1994ra aurreko garai guztietan baino titulu gehiago argitaratu ziren. 12595 hain zuzen ere.

## **3.2 GAUR EGUN**

### **Idazlea**

Liburugintzaren industrian ezinbestekoa da idazlearen papera. Idazlerik gabe ez dago libururik. Sorkuntza prozesuko protagonista da idazlea ideia izan eta gauzatzen duena. Baina badu idazleak liburugintzako katean aurkitzen diren beste norbanako guztiek ez duten bereizitasun bat. Idazlea batez ere euskal idazleak militantzia puntu batez osaturik daude. Euskal idazleek sorkuntzatik bizi diren arren ez dira liburuak sortzetik soilik bizi ahal.

Idazleak saldutako liburu bakoitzetik %10 jasotzen du eskubide gisa ondorengo puntuetan azaltzen den bezala baina euskal idazleek barneratuta daukate euskal liburugintzaren egoera kontutan hartuta jasotako irabaziak bitartekariak ordaintzeko baino ez duela ematen. Beraz hemen agertzen da militantzia puntu hori.

Euskal Idazleek hitz egitean ezinbestekoa da [EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAZ](#) hitz egitea.

1982. urtean sortu zen eta sorreratik lau fase desberdintzen dituzte beraien historian:

- 1982-1990: Legeztatze eta kokatze-aroa
- 1990-1996: Corpus literarioaren aroa
- 1996-2001: Gizarteratze-aroa. Azken aro honetan
- 2001-2008: Plan Estrategikoaren aroa.

Euskal idazleen eskubide profesional eta moralak defenditzeko asmoz egituratua dago elkarte eta 350 bazkidek gora ditu gaur egun. horrez gain, beste hauek ere badira bere xedeak: euskal literatura zabaltzea Euskal Herrian nahiz atzerrian, idazlearen lanaren proiektio soziala bideratzea eta euskalgintzaren eragile aktiboa izatea EIEk gizarteari eskaintzen dizkion egitasmoak:

- **'Hitzen uberan' interneteko ataria**

Euskal literaturzaleen bilgune izan nahi du *Hitzen uberan* atariak. Are gehiago, sortzaileen eta irakurleen arteko zubi izan nahi du, biltegi izatetik haratago.

[www.uberan.org](http://www.uberan.org)

- **Idazleak ikastetxeetan' programa**

Programa honi esker, idazleak ikastetxez ikastetxe joaten dira beren esperientziaz eta obra jakin bati buruz hitz egitera. Ikasleek, obra hori aldeztatik irakurrita izaten dute

- **'Literatura jarduerak' programa**

Programa hau kultur etxe, kultur erakunde eta euskaltegiei zabaltzen zaie, bere helburua honakoa delarik: irakurleak sortzea edo irakurle direnak literaturaren esparrura erakartzea

- **'Irakurrieran' irratsaioa**

Literaturaren inguruko albiste eta elkarrizketez osatutako irratsaioa eskaintzen du EIEk: *Irakurrietan* Bizkaia Irratian, larunbat eta igandeetan, 13:00etatik 13:30era (astelehen eta ostegunetan errepikapena, 22:00etatik 22:30era). Frekuentzia: Bilbon, FM 102.6.

- **Hegats' literatura aldizkaria**

Gaur egungo literaturgintzari buruzko ikuspegi zabal eta sakona ematen duen euskarazko literatura aldizkaria; seihilabetekaria da.

- **Galeusca**

Galiziar, kataluniar eta euskal idazleen arteko urteroko topaketa da Galeusca. Hiru herrialdeek komunean bizi dituzten gaiak lantzen dira bertan.

- **'Poesia orduak' Donostian**

Irailero tartea egiten dio EIEk poesiari Donostiako Victoria Eugenia antzokiko Club aretoan, emankizun ezberdinak eskainiz.

- **Euskal Liburuaren Gaua-'Dabilen elea'**

Euskal Liburuaren Gaua Euskal Idazleen Elkarteak, Euskal Editoreen Elkarteak, Euskal Irudigileen Elkarte Profesionalak, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak eta Galtzagorrik antolatutako ekimena da. Liburuaren Gauak liburuak sortu, ekoiztu eta irakurtzen dituztenen gaua izan nahi du. Euskal liburuaren aldeko lana goraipatu eta eskertzeko ekitaldi horretan *Dabilen elea* izeneko saria banatzen da, Donostian udazkenean ospatzen den ekitaldian.

### **Argitalpengintzaren industria**

Gaur eguneko liburugintzaren analisia egiteko nahitaezkoa zaigu Joan Mari Torrealdai urtero *Jakin* aldizkarian argitaratzen dituen datuak aztertzea. Honako honetan 2010ean argitaratutako aldizkarian 2009ko datuekin egindako analisia dugu aztergai.

Azterketa hasi aurretik Torrealdai bere liburuan ematen dituen bi azalpen argitzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Alde batetik aztertutako liburuen barnean lehen aldiz "liburu digitala" ere sartu da. Euskaraz idatzitako liburuak izan dira aztergai, euskarria kontutan izan gabe. Eta bigarrenik ISBN daukaten liburuak bakarrik izan dira kontutan azterketa egiterako orduan, hego Euskal Herriko liburuen kontrola erakunde horretan ematen baita.

### **Argitalpengintzaren industria**

Gaur eguneko liburugintzaren analisia egiteko nahitaezkoa zaigu Joan Mari Torrealdai urtero *Jakin* aldizkarian argitaratzen dituen datuak aztertzea. Honako

honetan 2010ean argitaratutako aldizkarian 2009ko datuekin egindako analisisa dugu aztergai.

Azterketa hasi aurretik Torrealdaik bere liburuan ematen dituen bi azalpen argitzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Alde batetik aztertutako liburuen barnean lehen aldiz “liburu digitala” ere sartu da. Euskaraz idatzitako liburuak izan dira aztergai, euskarria kontutan izan gabe. Eta bigarrenik ISBN daukaten liburuak bakarrik izan dira kontutan azterketa egiterako orduan, hego Euskal Herriko liburuen kontrola erakunde horretan ematen baita.

### 3.2.1 Jardun editoriala

279 argitaletxe eta hauen artean argitaletxe profesionalak eta horien ondoan lanbide honetara dedikatzen ez diren bestelako elkarte, talde eta autore editoreak. Ondoko taulan hamar argitaletxe indartsuenak ageri dira.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitaratzea</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
<i>Ibaizabal-Edelvives</i>	118	152	270	11.5
<i>Elkar</i>	108	152	260	11.1
<i>Elkar/Ikas. elkartea</i>	11	121	132	5.6
<i>Anaya</i>	66	49	115	4.9
<i>Giltza –Edebe</i>	61	43	104	4.4
<i>Alberdania</i>	78	12	90	3.8
<i>Erein</i>	41	35	76	3.2
<i>Deustuko unib.</i>	67	0	67	2.9
<i>Zubia-Santillana</i>	60	0	60	2.6
<i>Aizkorri-Everest</i>	30	21	51	2.2
<i>Guztira</i>	640	585	1225	52.2

### 3.2.2 Argitaratzaile motak

Bi aldagai hartuko ditugu ardatz modura: Jatorri geografikoa eta argitarazlearen izaera. Honen arabera ondorengo taula daukagu aztergai:

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
<i>Bertoko argitaletxe pribatu komertziala</i>	48	1034	44
<i>Argitaratzaile publikoa</i>	44	254	11



<i>Elkarte, talde, fundazio</i>	84	148	6.5
<i>Kanpokoak</i>	39	480	20.5
<i>Irakaskuntzakoak</i>	19	204	8.5
<i>Koedizioa</i>	22	160	7
<i>Besterik...</i>	23	57	2.5

Bertoko argitaletxe pribatuak : urteko argitarazleen %17.2 dira 48 etxe. Eta bere produkzioa %44 da.

Argitaratzaile publikoa: la bertoko profesionalen adina dira, %15a. Nahiz eta horien ekoizpena askoz apalagoa den, 254 titulu. Liburu mota honek bizialdi bakarra du ez baitu berrargitalpenik. Eusko jaurlaritzak da ekoizpen handia duena %60.

Elkarte, talde eta gisa berekoak: ekoizleen %30 denetan handiena diferentziaz. Ekoizpenean ordea ez du indar handirik %6.5. multzo honetako indartsuenak Euskaltzaindia, Kutxa Fundazioa, Eusko Ikaskuntza... .

Kanpokoak: Sail honetan sartuko ditugu etxe nagusia Euskal Herritik kanpo daukatenak. Ekoizleen %14 dira eta ekoizpen indarra altua dute. Produkzioaren %20.5 beraiei zor zaie.

Irakaskuntzakoak: Ez da multzo indartsua, ez ekoizle gisa %6.8. Ezta ere ekoizpenean %8.5. Azpimarra daiteke edizio digitala multzo honetan indarrean sartu dela.

Koedizioa: Hogeita bi eragile dira eta produkzioaren %7 suposatzen du. Uztarketa mota asko aurki ditzakegu baina garrantzitsuena Elkar eta Ikastolen Elkartearen arteko elkarlana da.

### **3.2.3 Argitaletxe digitala**

Liburu digitalaren sorreran unibertsitateak izan direla aitzindari esan genezake. Deustuko unibertsitatea izan zen aurrena formatu honi ateak zabaltzen, EHUK eta UEUK jarraitu ziotelarik. Tesien argitaratzea izan da oraintsu arte formatu honetan argitaratzearen ekintza nagusia. Oraindik euskarazko liburu digitala hasiera hasieran dago eta hazkundeak motel jarraitzen duen arren progresioa handia da. 2007an 12 titulu plazaratu ziren arren 2008an 90 eta 2009an 211. azken urte honetan nahiz eta unibertsitateak argitalpenetan lehen postuan jarraitu bestelako argitalpenak ere azaldu dira eta honi esker zabaldu da gai aniztasuna.

### 3.2.4 Gaiak

Torrealdairen ikerketa deskribatzen jarraituz, ekoizpena bera liburutan gauzatu den emaitza zer nolakoa den arakatuko dugu. Zer, zertaz eta zenbat argitaratu den.

<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>	<i>2009/2000</i>
<i>Hezkuntza.Irakaskuntza</i>	747	32	+46.7
<i>Haur/gazteentzako libu.</i>	508	22	+36.9
<i>Giza/Gizarte zientziak</i>	445	19	+73.8
<i>Helduen literatura</i>	380	16	+48.4
<i>Zientzia.Teknika</i>	140	6	+86.4
<i>Aisia liburuak</i>	58	3.5	+137.3

Hezkuntza eta irakaskuntza: tirada handiena eta berrargitalpen gehien duen liburua da. Horretaz gain kopuru aldetik ere garrantziko da, 747 titulu. Liburu mota hau hezkuntza planen menpe dago.

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 548 liburu. Liburu mota honek hurbiltasun handia du irakaskuntzako liburuekin. Biak doaz haur eta gazteen merkatura. Berrargitalpenak garrantzia handia du liburu mota honetan % 40 eta are handiagoa da itzulitako liburuen pisua %50.

Gizarte eta gizarte zientziak: 445 titulu eta kopurua urtetik urtera gora doa baina ez da nahikoa. Titulu asko beharko lirateke euskararen gizarte bizitza normalizatzeko. Kopurua txikia eta zirkulazioa are eskasagoa duen liburu mota da hau eta berrargitalpenak ere oso urriak dira, %6.

Helduen liburuak: Urte luzeetan izan duen proportziorik altuena izan du literaturak aurtan 380 titulurekin. Azken urteetako beheraldia ikusita 2009a literaturaren urtea izan dela esan genezake.

Gainerakoak: Ez dute orain arte ikusi ditugunen dentsitate edo trinkotasunik.

### 3.2.5 Banatzaileak

Banatzaileek, idazleak egindako lana, editoreak liburu bihurtu ondoren irakurlearengana iristea ahalbideratzen duen prozesuko hirugarren hanka da.

Argialetxe bakoitzak banaketa sistema garatu du, batzuk bere banaketa enpresa daukate eta beste askok banaketan espezializatuta dauden enpresa pribatuetara jotzen dute.

Euskal banatzaileen artean Elkar banatzailea da indartsuenetako bat. Hainbat argialetzek jotzen dute banaketa enpresa honetara. Elkar beraz gain, Txalaparta, Edebe giltza, TTartalo eta beste askok erabiltzen dute enpresa hau.

Bigarren banatzaile indartsu bati buruz hitz egiterakoan *Bitarte S.L* aipatu behar dugu. Nafarroan kokatzen da banatzaile honen jatorria eta Alberdianak adibidez banatzaile hau erabiltzen du.

Estatu mailako banatzaileek ere badaukate lekua Euskal Herrian. Hauen artean UDL aipatuko dugu. Beraien apustua argialetxe eta liburu-denden independentzia eta aniztasuna azpimarratzen ditu, banatzailearekin batera.


### Salmenta Guneak

Salmenta guneen sailkapen bat egiterakoan honako hau izango da erabiliko duguna: Denda kate handiak, liburu denda txikiak, hipermerkatuak eta saltoki handiak. Azkenik internet bidezko salmenta ere kontutan izan beharreko salmenta gunea da gaur egun.

Merkaturatze-kanalak (milaka euro)	Guztira	% euskara
Liburu-dendak	30.386	% 50,2
Liburu-denden kateak	15.994	% 37,0
Hipermerkatuak	6.276	% 51,8
Kioskoak	232	% 23,3
Enpresak eta erakundeak	23.080	% 55,6
Liburutegiak	215	% 80,9
Kreditu eta telefono bidezko salmenta	308	% 65,9
Posta	603	% 4,1
Klubak, Internet, harpidetzak	844	% 36,0
Gainerakoak	1.330	% 23,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>79.268</b>	<b>% 48,4</b>

Iturria: Euskadiko Editoreen Elkarteak. *EAEko argitalpenei buruzko XIV. Txostena. 2008ko barne merkataritza.*

Datuen arabera jendeak gaur egun oraindik nahiago du denda txikietan erostea. Euskal Herrian kontsumitzen diren liburu gehienak liburu denda txikietan erosten dira beraz euskal gizartea oraindik leial zaio herriko liburu-denda txikiari. Zuzeneko tratuari garrantzia handia ematen diotela nabaritzen da datu hauetan, denda txikian jasoko



den atentzio pertsonalizatua saritzen dela eta hau hipermerkatuetan aurkitzen ez denez ba horra datuen adierazpena.

## Azokak

Ezin ahaztu ditzakegu azokak euskal liburuen salmenta eta banaketaren atal honetan, liburu eta idazleen promoziorako gune garrantzitsu bihurtzen baitira. Euskal herrian bada azoken zirkuitu interesgarri bat urtean zehar aukera asko ematen dituen.

### Liburu Azoken egutegia 2011

LOCALIDAD	TIPO	FECHAS
MUNGIA ( PLAZA MATTIN)	MIXTA	del 18/02 al 27/02
BERMEO (PLAZA LAMERA)	MIXTA	del 04/03 al 13/03
LAUDIO (PLAZA LAMUZA)	MIXTA	del 18/03 al 27/03
BARAKALDO (HERRIKO PLAZA)	MIXTA	del 01/04 al 10/04
HERNANI (HERRIKO)	MIXTA	del 05/05 al 08/05
ERMUA (CARDENAL ORBE)	EUSKERA	del 12/05 al 15/05
AMURRIO (JUAN URRUTIA)	MIXTA	del 19/05 al 22/05
BILBAO (ARENAL)	NOVEDAD	del 02/06 al 12/06

## Liburu Azoken egutegia 2011

LOCALIDAD	TIPO	FECHAS
SANTURTZI (HERRIKO PARKEA)	MIXTA	del 17/06 al 26/06
DONOSTIA (PLAZA GIPUZKOA)	NOVEDAD	del 01/07 al 17/07
ONDARRU (ALAMEDA)	NOVEDAD	del 22/07 al 31/07
HONDARRIBIA (SAN PEDRO)	NOVEDAD	del 11/08 al 15/08
ZARAUTZ (MUNOA)	NOVEDAD	del 19/08 al 28/08
DONOSTIA (GIPUZKOA PLAZA)	OCASIÓN	del 02/09 al 18/09
GASTEIZ (AVENIDA GASTEIZ)	OCASIÓN	del 23/09 al 09/10
EIBAR (UNZAGA PLAZA)	NOVEDAD	del 14/10 al 23/10
BILBAO (ARENAL)	OCASIÓN	del 28/10 al 13/11
TOLOSA (SAN FRANCISCO)	MIXTA	del 18/11 al 27/11
HONDARRIBIA (SAN PEDRO)	EUSKERA	del 01/12 al 04/12
GALDAKAO (MUGURU)	EUSKERA	del 16/12 al 21/12

Baina guzti honetatik bada bat erreferente bihurtu dena. Durangoko Azoka. Abenduko Konstituzioaren zubiko lau egunetan burutzen da euskalgintzan dihardutenen elkargune bezala. Euskal herriko argitaletxe guztiak batzen dira azokan eta literatura eta musikaren erakustoki garrantzitsuena bihurtu da.

1965. urtean antolatu zen azoka lehen aldiz Andra Mariaren elizaren aterpean. Gerediaga elkarteak izan zen lehen edizio hau antolatu zuena. Euren esanetan "Euskal Herrian zegoen liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea" zen helburu eta ezagutzera ematen hasi ziren ohiek euskalgintzaren erreferente bihurtu dira. Gaur egun euskaldunen eta euskal zaleen urteroko zita edo topaleku izatera heldu da.

#### **4. Espainiako Liburugintzaren Legeria**

1966ko martxoaren 18an prentsa eta argitalpenen legea onartu zen, 14/1966 legea. Lege horretan adierazpen askatasuna aitortu zen lehen aldiz Espainian. Horrek aurrerapauso itzela suposatu zuen argitalpenen industriarako, ondoren aitortua izango zena Konstituzioaren 20.artikuluaren bidez. 1966tik gaur egun arte liburugintzaren inguruko

arauak aldatuz joan dira eta moldatu dira gaurko beharretara. Hala ere, badago zerbait aldatu ez dena. Liburu eta liburuxka guztiak ISBN zenbakia eraman behar dutela.

1975eko martxoaren 12an, 9/1975 legea onartu zen. Liburuaren sustapena, ekoizpena eta hedapena lantzen duena. Liburuaren legeak neurri ekonomikoak eta kulturalak bateratzea du helburu. Berez, argitalpenen industria lehentasunezko industria bezala aintzat hartzen delako.

Liburuaren legeak zehazten du merkatu horren barruan dauden pertsonak: egileak, editoreak, banatzaileak, liburutegiak eta inprimatzaileak. Euren arteko erlazioa orekatzen du. Aldi berean, betebeharrak, arau-hausteak eta zigorrak zehazten ditu, eta finantza eta zerga zuzenbidetan zehaztuta dauden abantailak ere aipatzen ditu.

2007ko martxoaren 22an, 10/2007 legea onartu zen. Irakurketaren, liburuaren eta liburutegien legea. Lege honek pertsona guztien eskubideak bermatzen ditu, gabeziak dituzten pertsona horiek barne, liburu eta liburutegietara sartzeko eskubidea eta eskubide hau bermatzeko beharrezkoak diren neurriak.

Legearen helburuak eta eremuak aipatzen ditu legeak. Horrez gain, definizioa zehatzak ematen ditu argitalpen prozesu bateko atal desberdinei dagokionez ( liburu, publikazioa sortak, editorea, banatzailea, liburu saltzailea, kontsumitzailea, liburutegia, liburutegi digitalak, inprimatzailea, egunkarietako publikazioak). Irakurketaren legediari aipamena egiten dio: ISBN katalogazio sistemari eta prezio finkoaren inguruko zehaztapenak ematen ditu. Azkenik liburutegien erabilerari buruz mintzatzen da eta zigor sistemaren xedapenak adierazten ditu.

#### **4.1 ISBN**

International Standard Book Number (Liburuaren Nazioarteko Zenbaki Normalizatua) erabilera komertzialerako liburuaren kode identifikatzailea da. 1966an Erresuma Batuan sortu zuen W H Smith liburu eta paper-dendak, Standard Book Numbering (SBN) izenpean. 1970ean Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundeak 2108 estandar internazional moduan definitu zen.

Hasieratik eta 2007ko urtarrilaren 1.a arte, ISBN zenbakiak 10 zifra zituen. Hortik aurrera 13 ditu. Lehenengo zatiak argitalpen mota adierazten du (978 liburuaren kasuan). Bigarrenak estatua edo hizkuntza eremua; hirugarrenak argitaletxea, liburuaren kasuan, eta laugarrenak argitalpena bera identifikatzen du (izenburua, argitaraldia).

Azken zenbakia kontrol digitua da, besteen arteko konbinazio zehatz batetik ateratzen dena.

Aldizkarietako argitalpenetan ISSN (International Standard Serial Number) erabiltzen da. International Standard Serial Number (Serie-argitalpenen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua) periodikotasun zehatza duen argitalpenak identifikatzeko zortzi digituzko identifikatzailea da. Aldizkari, egunkari eta mota horrelako argitalpenak sailkatzeko erabiltzen dute liburutegi eta biltegiatze guneetan.

#### **4.2 Prezio finkoaren ezarpena**

Liburuaren legeak aipatzen duen neurri nagusia 33.artikuluak aipatzen duena da; liburu bakoitzari prezio konkretu bat ezarriko zaio eta komertzializatzen den toki guztietan prezio berbera izango du. Baina gauza guztiekin gertatzen den bezala, salbuespen kasu batzuk daude. Liburu batzuen bertsio originalak, artistikoak edota liburuaren legea sortu aurretik editatuak ez dute prezio zehatzik. Horretaz aparte, liburuaren egunean, azoka nazionaletan, biltzarretan eta erakusketetan ematen diren prezioen beherapenak onartzen dira. Zehazki prezio originalaren %5aren beherapena onartzen da eta %12koa ikasketetarako liburuetan. Azkeneko deskontu honek ez zaio liburuei besterik ezartzen. Ikasketetarako material guztiari aplikatzen zaio kurtso berria hasteko garaia heltzen denean. Horrek etekin ekonomiko handiak ateratzeko aukera ezin hobea dela suposatzen da, baina ez da hala izaten liburu-denda txikientzat. Liburu-denda hauek liburuak baino ez dituzte eskaintzen, orduan kontsumitzaileek liburuen beharraz gain eskolarako materiala ere behar dutenez denda nagusitara jotzen dute. Horren ondorioz, liburu-denda txiki hauek prezio finko baten inposaketa eskatzen dute produktu hauentzat. Diru harrerak berdinak jasotzeko aukera izateko guztiek. Izan ere, ikasketetarako liburuek etekin ekonomiko kopururik handiena eskaintzen diote editorialeari, beraz, eztabaida handia dakarren kontua da.

#### **4.3 Diru laguntzak eta beherapenak**

Onura fiskalen barruan, liburuei egokitzen zaien BEZaren murriztapena aipatzen da. Kontsumorako produktu gehienak %18ko BEZa dute, liburuek izan ezik, %4a dutela. Kasu honetan, paperezko liburuen eta liburu digitalen arteko desberdintasun deigarri bat dago. Izan ere, orain esan bezala, paperezko liburuek %4ko BEZa dute, liburu

digitalak aldiz, %18koa. Horretaz aparte, Espainian editatutako liburuen publizitatea hedabide publikoetan %30eko beherapena du eta egile espainiarrena %50ekoa. Gainera, elkarteen gaineko zerga, igorpenak, enpresen arteko mugimenduak eta bankuek eskainitako kreditu kontuek gutxitzeak ere jasotzen dituzte. Halere, diru laguntza zuzenak jasotzen dute, batez ere kanpoko merkatura zabaltzeko. Itzulpen lanetarako izaten da diru hau gehien bat, atzerriko hizkuntzetara egokitzeko ondoren komertzializatu ahal izateko herrialde haietan.

Horreri gehitu behar zaio liburutegi publikoetara liburuak eramateko dauden diru-laguntzak, kultur aldizkariak editatzen dituzten editorialentzat daudenak eta irakurketa bultzatzeko dauden programa desberdinetarako laguntzak. Gutxi gora behera 2007-2015 urte bitarte horretarako kalkulatu den diru kopurua 430 milioi eurokoa da.

#### **4.4 Liburu egile eskubideak:**

- *Egitate sortzailea*: Obra literario, artistiko edo zientifiko baten jabetza intelektuala egileari dagokio, hura sortze hutsagatik.
- *Edukia*: Jabetza intelektuala izaera pertsonaleko eta ondare-izaerako eskubidez osatuta dago; eskubide horiek obra xedatzeko esku osoa eta hura ustiatzeko eskubide eskusiboa ematen diote egileari, legean ezarritakoak beste mugapenik gabe.
- *Ezaugarriak*: Egile-eskubideak independenteak, bateragarriak eta metagarriak dira hauekiko:
  1. Sortze-lan intelektuala txertaturik doan gauza materialaren gaineko jabetza eta beste eskubide batzuk.
  2. Obraren gaineko jabetza industrialeko eskubideak, halakorik bada.
  3. Lege honen II. liburuan aitortzen diren jabetza intelektualeko beste eskubideak.
- *Jendarteratzea eta argitaratze*: Lege honetan xedaturikoari dagokionez, obra bat jendarteratzea jotzen da: hura zeinahi formatan adieraztea, publikoak egilearen adostasunez hartara lehen aldiz irispidea izateko moduan; eta argitaratzea, berriz: publikoaren beharrak obraren izaera eta helburuen



arabera balioetsiak- modu arrazoizkoan aseko dituen ale kopuru bat haren eskura jarriz obra jendarteratzea.

Lan literario, zientifiko edota artistiko original guztiak babesten ditu jabetza intelektualak eta horien artean liburuak, liburuxkak, inprimakiak, epistola-liburuak, idatziak, hitzaldiak, itzulpenak, egokitzapenak, berrikusketak, eguneratzeak, oharrak, sintesiak, laburpenak eta transformazioak, besteak beste. Obren izenburuak ere babesten dira, beti ere originalak baldin badira. Egile eskubide hauek bizitza osoan zehar irauten dute eta hiltzen denetik edota heriotza aitortzenetik 70 urtera arte. Jarraian lana jabetza publikokoa izatera pasatzen da. Kasu honetan ez dago baimenaren beharrik erabiltzeko, beti ere, lanaren egiletasuna eta osotasuna errespetatuz.

Kontuan hartu beharrekoa da ere egile eskubideak bi motatakoak izan daitezkeela: moralak edota ustiapenezkoak. Eskubide moralak egileari soilik dagozkio eta ezin daitezke inori utzi eta ezin zaie uko egin. Ustiapeneko edo ondarezko lanen kasuan egileak lanaren erabilerari buruz erabaki dezake, Jabetza intelektualaren lege espainiarrean aurreikusitako kasu jakin batzuetan izan ezik. Mugak edo salbuespenak lirateke horiek.

Horretaz aparte, egileei zenbait eskubide gehiago onartzen zaizkie: kopia pribatu bakoitza egiten denean ordainsaria jasoko du egileak, ustiapen-eskubideak beste norbaiti utzita izan arren egileak eskubidea du lanak aukeratutako bildumetan edo guztiak batera argitaratzeko eta lanaren saltzaileak %3a eman beharko die egileei, beti ere prezioa kopuru zehatz batetik gorakoa baldin bada.

Liburu egileen eskubideak zertan oinarritzen diren ikusi dugu, baina errealitatean zer gertatzen da? Eguneroko jardueran idazle batek traba ugari aurkitzen ditu liburu bat kaleratzeko orduan. Hasteko liburu bat kaleratzeko editorialari ordaindu beharrekoa ez da batere eskasa. Hala ere, sortze askatasuna muga ugari ditu, aukera-berdintasuna desberdina da eta idazle eta idazkien gaineko gehiegikeriak onartu ezinak dira. Horri gehitu behar zaio gaur egun editorialek eskaintzen dituzten kontratu berriak. Kontratu berri horiek edizio elektronikoaren gaineko eskubideak hartzen dute, nahiz eta ez ustiatu. Horrek suposatzen du beste editorial batek ustiatzeko aukera eskaintzen

badigu, ezin ustiatu ahal izatea beste batekin hori egiteko konpromisoa hartuta dugulako.

## **5. Liburugintza Digitala**

Liburugintzaren egungo eta etorkizuneko erronka handiena da digitalizazioa. Dagoeneko indarrean dagoen arren eta gaur egun produkzioa proportzioan igotzen ari bada ere lan handia gelditzen da formatu honen normalizaziorako. Editore askorentzat iraultza digitala, ordenagailuen erabilera eta komunikazioa hobetzeko erabiltzen diren sareetara mugatzen da, hauen helburuak kostuak murriztea baino ez direlarik. Hitz bitan lana errazteko sistema gisa ikusten dute digitalizazioa editore hauek.

Lehen iraultza, *teknologia optikoek* ekarri zuten. CD-a formatu egokia da liburu bat argitaratzeko eta merkeagoa izateaz gain paperak baino aukera gehiago ematen ditu. Hala ere pantaila batetan irakurri beharra eragozpena baino ez da. Eragozpenak eragozpen, formatu honen editoreek %2 edo 3 suposatzen dute. Baina teknologia optikoak ere garaitu ditu interneteko sareak. Internetek aukera zabalagoa ematen baitu. Espainiako editoreak ordea ez dira internetek ematen dituen aukerotaz baliatzen. Editoreentzat interneteko erabilera orrialde web hutsal batetara mugatzen da non irudi korporatiboa azaltzen duten eta katalogo bat argitaratzen duten.

Baina Sarean, katalogo horrek, bizia hartu lezake liburuen salmentan. Liburu-denda birtual bihurtu daiteke eta liburu-denda hauek ohiko liburu-dendek ematen ez duten etengabeko zerbitzu bat eskaini dezakete. Merkatua mundu mailan hedatu dezakete eta baita katalogoa bera ere. Badaude EEBBetako adibide batzuk, [www.amazon.com](http://www.amazon.com) adibidez. Baina EEBBetako arrakastaren guztiz kontrakoa gertatzen da Europan. Europan liburu-denda digitalek ez dute arrakastarik izan momentuz. Eta batez ere Espainia mailan. Zein da arrakasta ezaren arrazoia? Hein handi batean liburuaren prezio finkoa. Estatu batuetako liburu-denda birtual horiek liburuaren gaineko deskontuak aplikatzen dituzte, askotan %40 arte. Deskontu hauekin liburuak suposatuko lituzkeen gastu guztiak murrizten dituzte eta azkenean ordaindu beharrekoa prezioa onargarria izatea ahalbideratzen dute. Espainiako kasuan ezinezko gertatuko litzatekeelarik. Estatuan liburuaren prezioa finkoa da aurrez ezarrita dago eta ezin zaio deskonturik aplikatu. Deskonturik aplikatu ezin eta gainera bidaltze gastuak gehitu behar zaizkio. Honela liburuaren azken prezioa garestituz. Beraz ez da

errentagarria gertatzen eta errentagarria gertatzen ez denak ez du arrakastarik izaten edo ez du interesik sortzen. Gainera agerikoa da atzerriko herrialdeek negozioa egin dezaketela hemengoa bezalako herrialdeetan. Hau da, liburuaren prezio finkoa duten herrialdeetan birtualki liburuak saltzea zilegi zaie, liburu horiei mugagabeko beherapenak aplikatuz. Honekin bertoko sareari konpetentzia gogorra egiten diote bertoko produktua garatzea trabatzen dute.

Guzti hau gertatzearen arrazoi nagusia, legislazioan dagoen hutsune handia da eta ez bakarrik prezioaren inguruko hutsunean. Interneten existentziaren inguruko hutsune legal izugarria dago European eta honek asko mugatzen du liburu digitalaren garapena. Liburua sistema bitarrera pasa daitekeen objektua da. Inolako arazo gabe formatu digital batekin sarean banatu daitekeen objektua da. Errealitate juridiko hau ez da baina inon jasotzen. Espainian eta baita European ere liburua, liburu bezala onartzeko, paperezkoa izan behar da. Baina errealitateak zera dio, On line editatutako liburuak paperezkoen aurrean hainbat abantaila dituztela. On line editatutako liburuak ez dute inprimatzeko beharrik beraz produkzio kostuak merkatzen dira eta banatzerako orduan ere sarean kostuak guztiz merkatzen dira. Hala ere oraindik liburu digitalaren merkatua existitzen ez dela esan genezake.

### **5.1 Sistema digitalekiko estrategia eza**

Liburu digitalak interneten arrakastarik ez izatearen arrazoiak hainbat direla esaten dute askok. Baina datuek diote, liburu digitala eskaintzen duten liburutegien diru sarrerak handiak direla. Hau gauzak aldatzen ari diren seinale baino ez da eta honen adierazgarri da baita aurkeztu berri den liburuaren legearen aurreproiektua non liburu digitala eta ohiko liburu inprimatua berdintzen dituen.

Orduan zein da arazoa? Alde batetik pantailan irakurtzearen eragozpena aurkitu dezakegu. Oraindik liburu inprimatua praktikoago ikusten jarraitzen du merkatuak. Eta beste alde batetik internetek ematen duen debaldeko merkatua da. Editoreak mesfidati azaltzen dira merkatu honen aurrean. Baina merkatu hau ere alda daiteke kalitatea eta nolabaiteko bermea eskaintzen diren heinean. Eta hau da liburu digitalaren merkatuan gertatzen dena. Ez dago eskaerarik eskaintza erakargarririk ez dagoelako. Editoreek ez dute On line editatzen nahiz eta hemen merkatu bat egon eta ez daude interneten arrazoi bakarragatik: internetek daukan kopiatzeko


erraztasunagatik. Pirateriaren mehatxua dela eta ez dute sarean izateko interesik. Editoreen negozioa horretan baitatza, liburuaren kopien kontrolean.

Guzti hau honela izanik ere badaude Google bezalako enpresak liburu digitalaren merkaturuan sartzeko arriskua hartzen dutenak. Liburuak digitalizatzeko arduraren hartzen dutenak eta hauek aurkitzeko bilatzaile bat martxan jarri dutenak. [www.books.google.com](http://www.books.google.com). Ekimen honetaz baliatu ordez editoreek demanda jarri diote googlei, nahiz eta ekimen honek bilatzen ari garen informazioa azaltzen den liburuaren paragrafo bakarra azaltzen duen eta liburuak internetetik erosi daitezkeen liburu-dendetara bideratzen gaituen.

Dohainik diren liburuaren kontsumoa, liburu publikoen digitalizazioa eta kalitate kulturalik ziurtatu ezin dezaketen edizio berri gutxi batzuek osatzen dute beraz gaur eguneko liburuaren merkaturua interneten. Beraz ez dago apenaz merkaturik, ezta epe labur batean estatu espainiarrean sortuko den esperantzarik.


## 6. Irakurtzeko ohiturak

Espainiako irakurketa indizeak neurtzen dituzten datuek adierazten dute biztanleriaren erdiak baino ez duela irakurtzeko ohitura.




Espainiako biztanleriaren %60,3ak liburuak irakurtzen ditu. Bai lana edo ikasketengatik, bai zaletasunagatik. Aisialdian irakurtzen dutenen kopurua %57koa da. Urtean 9,6 liburuko media irakurtzen dute, hau da, ia liburu bat hilero. Lanarengatik irakurtzen

duen biztanleriaren kopurua %21,5koa da. Urtean, 10,4 liburuko media irakurtzen dute.




Euskarri digitalean dauden edukiei dagokionez, datuak askoz ere baxuagoak dira:




Aisialdian liburuak irakurtzen duten pertsonen kopurua altuagoa da emakumeengan. Lanengatik edo ikasketengatik berriz, gizonak dira gehien irakurtzen dutenak.


Hala ere, bai aisialdiagatik bai lan zein ikasketengatik, irakurleen kopurua jaitsi egiten da adin maila igo ahala. Lan zein ikasketengatik irakurtzen duten pertsonak 14-24 urte bitartekoak dira.




Ikasketa maila ere deigarria da datu hauetan. Zenbat eta ikasketa maila altuagoa izan, orduan eta irakurtzeko ohitura gehiago. Biztanleria kopurua kontuan izan beharreko faktorea da ere. Biztanle gehiago, irakurle gehiago.




Probintziaka aztertuta konturatu gara Madril, EAE, Errioxa, Kantabria eta Aragoi irakurle kopuru altuena dutenak direla.



Irakurleen %52,9ak bi edo gehiago hizkuntzetan irakurtzen du. Espainiako biztanleriaren %99,9ak gazteleraz irakurtzen du eta jarraian hizkuntzarik irakurriena katalana da, %79,5.



Arlo irakurriena literatura da. Ondoren, baina diferentzia deigarriarekin gizatasuna eta gizarte zientziak jarraitzen dute.



Liburuak erosten dituzten biztanle kopurua %56,1koa da 2010.urtean. Aldiz, liburuak erosten ez dituztenen portzentaia %43,8koa da.




Estatu espainiarreko datuak aztertu ditugu. Orain Euskal Autonomi Erkidegokoak aztertuko ditugu. Kultur ohiturak, praktikak eta kontsumoa hain zuzen. Grafikoetan




agertutako datuen arabera ikusi daiteke irakurketa bigarren postuan dagoela. Liburuen eta egunkarien irakurtzeko ohituraz jarraitua.

. Kultura-jardueretako interesaren rankinga (batezbestekoa)




Pertsonen irakurketarako interes-maila azertu eta gero, konturatu gara egunkariak irakurtzeko interes altua dagoela. Ondoren, liburuak irakurtzeko ohitura.

Pertsonak, irakurketarako interes-mailaren arabera (%)




Irakurtzeko interes maila ere sexuka bereiztu daiteke. Orokorrean lehen esan dugun bezala, emakumeak dira irakurtzeko ohitura gehien dutenak, egunkarien kasuan izan ezik. Ginonezkoak nagusitzen direla.

Irakurketarako interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




Adin tartearen arabera, orokorrean, gehien irakurtzen dutenak 35-44 adin tartekoak dira. Liburu gehien irakurtzen dutenak. Egunkarien kasuan berriz, 55-64 adin tartekoak dira gehien irakurtzen dutenak. Aldizkari gehienak aldiz, 15-24 urte tartekoak.

Irakurketarako interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



Ikasketa mailaren arabera aztertuz gero, orokorrean unibertsitate ikasketak dituztenak dira gehien irakurtzen dutenak.

Irakurketarako interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)



Gloria Gómez-Escalonillak “Políticas del libro” liburuan adierazten du erantzukizuna politika kulturaletan dagoela. Liburuaren legeak adierazten du liburugintza sustatu eta zabaldu behar dela eta irakurtzeko ohiturak bultzatu behar direla, eta Administrazioak hori egiteko dituen baliabideak liburutegi publikoen zabalera eta sustapen kanpainak dira.

## **6.1 Liburutegiak**

Administrazioak eskaintzen duen baliabidea da jendeak liburuak hartu dezan. Baina sistema honek hobetu beharreko zenbait puntu ditu:

- Frantzia jarraitzen duten eredu berdina jarraitu beharko lukete Espainiako liburutegiek. Alderdi editorialen parte izan beharko lirateke eta ez irakurketa sustatzen duten programen parte.
- Liburutegientzat ezarrita dagoen aurrekontuen handitzea.
- Liburutegien sorrera handitu behar da. Ahalbidetu beharko litzateke programa bat, Espainiako eremu geografiko guztian liburutegiak egoteko aukera posible egiten duena. Aldi berean, ikastokiei laguntza eskaini behar zaie euren liburu zailak handitu dezaten.
- Liburutegi publikoetan haurrentzako liburu zailen sorrera sustatu behar da.
- Liburutegi bat erakargarria izateko gaurkotuak diren liburuak izan behar ditu. Beraz, diru-laguntzak behar ditu.
- Liburutegi digitalen sorrera. Liburu espainiarrak atzerrian zabaldu ahal izateko beharrezkoa da liburutegi digital bat sortzea. Honela liburu digitalak sustatzeaz gain, mundu guztian Espainiako liburuak ezagutzera emateko aukera da.

Azkeneko 2010.urtean, biztanleria osoa erreferentzia gisa hartuz ikusi dezakegu kopuru osoaren %29,1a liburutegira joan dela, eta gainontzeko %70,9a ez dela joan.

% Kopurua		Liburutegira joaten dira	Ez doaz liburutegira
		%	%
Sexua	Guztira (7.125)	29,1	70,9
	Gizonak (3.515)	26,4	73,6
	Emakumeak (3.610)	31,6	68,4
Adina	14 urtetik 24ra (964)	59,0	41,0
	25etik 34ra (1.390)	30,6	69,4
	35etik 44ra (1.509)	33,5	66,5
	45etik 54ra (1.181)	22,6	77,4
	55etik 64ra (931)	18,6	81,4
	65 urtetik aurrera (1.150)	11,4	88,6

## 6.2 Irakurketarako sustapen kanpainak:


Irakurtzera eramaten gaituzten publizitate kanpaina erakargarriak egiteaz gain, Liburuaren Azoka antolatzea metodo ezin hobea da.

Hala ere, badaude hainbat ekintza beste herrialde batzuetan oso eraginkorrak direnak eta Estatu espainiarrean egiten ez direnak:

- *Irakurketa ohituren ikerketa.* Urtero, Espainiako biztanleriak dituen irakurtzeko ohituren ikerketa bat egiten da, baina ez da oso egokia. Izan ere, orokorki aztertzen delako eta ez da talde sozial zehatzetan oinarritzen ikerketa. Esate baterako, ez dira hauren irakurtzeko ohiturak aztertzen. Ez dakigu zenbat irakurtzen duten, noiz, zer eta nola. Horretaz aparte, ez dakigu zeintzuk diren biztanleriak ez irakurtzeko dituen arrazoiak. Ikerketa hauek baliagarriak izango lirateke irakurketa sustatzen duten publizitate kanpainak eraginkorragoak garatzeko.
- *Publizitate eta komunikazio kanpaina iraunkorrak.* Eraginkorragoak diren kanpainak egon beharko lirateke urte osoan zehar, baina inpaktu sozial

handiagoa dutenak opor garaian eta gabonetan. Biztanleria zabal baten eskura egon dezaten hedabide publikoetan erakutsi beharko ziren iragarki horiek.

- Brasilek egin duen bezala, bertoko editorialek irakurtzeko ohiturak bultzatzeko ekintzetan inbertitu beharko lukete.
- *Irakurtzen hezitu.* Hezkuntza Ministerioak sustatu behar du irakurketa ohitura baten bihurtzea lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleen artean. Eskolatik kanpoko irakurketa tailerrak ere sortu beharko lirateke. Umeek txikitatik irakurtzeko ohitura izanez gero, nagusitan ohitura bera izango dute.



- *Doaneko irakurketa.* Zenbait egunkarik publizitate kanpaina berezi batzuk antolatu dituzte non egunkaria erosteagatik gehi euro bat liburu bat eraman zezaketen erosleek. Prezio berezi horien ezarpenak publikoa erakartzeko balio dute. Salmentak gora egiten dute, baina irakurtzeko zaletasuna ere sustatzen da. Editorialek ezin diete biztanleei irakurtzeko beharra inposatu, baina irakurtzeko aukera izan dezaten lagundu dezakete.

## 7. Gainditu beharreko oztopoak

### Idazlearen eskubidea

Legearen arabera idazleak salmenten portzentaje bat jaso behar du autore eskubideak direla medio. Tradizionalki autoreak %10 jaso izan du. Gaur egun ordea errealitatea lege horretatik urruntzen ari da eta autoreek jasotzen dutena, jaso beharko luketenaren erdira jaitsi da. Batez ere idazle berri eta zientzia arloko edizioak burutzen dituzten idazleen aldetik. Baina badaude diru asko zakuratzen duten

idazleak ere. Izen handiko edo modan dauden idazleak. Guzti honen ondorioz kontratazio sistema aldatzen hasi da, non, inportantzia gehiago daukan diru sarrerak kultura bultzatzeak baino.

Beste alde batetik edizio kontratuetan editoreak arlo digitaleko eskubideak bereganatzen dituzte. Nahiz eta ez dituzten hauek ustiatuko. Honela idazleei beste aukera bat litzatekeen atea itxiz.

Badaude aukera desberdinak eta gaur egun idazleek sare sozialek eta internetek ematen dituzten aukerak baliatzen hasi dira. Hona hemen Hernan Cascarik idatzitako *Adios, Industria editorial* artikulua adibide gisa.

<http://orsai.bitacoras.com/2011/06/adios-industria-editorial.php>

### **Irakurketa indizeak**

Gaur egun Espainian bizilagunen erdiek baino ez dute irakurtzeko ohitura eta honen errudun administrazioen irakurketa sustatzeko politika eza dela esan behar dugu. Legeak berak dioenez liburuaren eta irakurketaren sustapena burutu behar da eta honetarako tresnarik onena liburutegiak eta irakurketa kanpainak dira.

Ahalegin handiak egin izan dira askotan eta publizitate kanpainen adibide asko jarri ditzakegu. Baina irakurzaletasuna zabaltzeko beharra eta lana oraindik handia da eta tokian tokiko ahaleginak egin behar dira. Gobernuek, instituzioek, ikastolek eta norberak dauka irakurzaletasuna zabaltzeko konpromisoa. Hemen Arrigorriaga eta Bilboko Abusu auzoan egindako ekimen bat ekarri dugu interesgarri iruditu zaigulako. Irakurzaletasuna umetan edo gaztetan sustatu beharra dago. Liburuak eskuragarri jartzea beharrezkoa da eta edozein modu izan daiteke ona. Hona hemen adibide bat:

<http://arrigokultura.blogspot.com/2011/01/eutsi-liburu-bat-kanpaina-abusu-auzoan.html>

Beste adibide interesgarri bat Idazleek beraiek Eusko Jaurlaritzarekin batera burututako beste ekintza bat da. Eskoletan irakur zaletasuna sustatzeko pentsatua dago eta idazlearen lana ikasle eta irakasleei hurbiltzea du xede.

### **Liburuaren salneurri finkoa**

Estatuan liburuak salneurri finkoa daukate baina badira beherapenak aplikatu daitezkeen liburu motak ere, testuliburuak hain zuzen ere. Testuliburuak liburu denda

arruntetan erosten ditugu kurtso hasieretan eta liburu denda hauek etekin handi bat jasotzen dute diru sarrera hauekin. Horregatik liburu denda txikiek liburu hauen salneurri finkoa eskatzen dute beraien biziraupenerako. Liburu denda handiek beherapen handiagoak egin ditzakete testuliburuaren gainean eta honela erosleen gehiengoa bereganatzen dute liburu-denda txikiei lehiatzeko espaziorik utzi gabe. Izan ere, liburu-denda txiki asko desagertu dira estu liburuaren salneurria librea denetik.